

## Arrakastaren sekretua zintzotasunean dago, gogoia eta ekintzen arteko koherentzian

Izen-deiturak: \_\_\_\_\_

Taldea: \_\_\_\_\_

| AUTOEBALUAZIO ERRUBRIKA |   |  |  |
|-------------------------|---|--|--|
|                         |   | #EtxeanGeratu  |  |
|                         | 1   | 2  | 3  |
| <b>A</b>                | Nire jokabidea, egia esan, <b>ez da oso egokia izan</b> . Problemak izan ditut bizilagun edo familiako batzuekin.   | Nire jokabidea <b>nahiko ona</b> izan da, noiz edo noiz problema txikotxoren bat sortu badiet ere familiakoei edo bizilagunei.   | Ene jokabidea <b>ona</b> izan da. Ez diet problema handirik sortu ez familiakoei, ez bizilagunei.  |
| <b>B</b>                | Egia esan <b>askotan saiatu ere ez</b> . Hainbeste lan kargarekin ezinezkoa da gauzak irakasleek eskatzen duten bezala egitea. Disimulatzen saiatu naiz, baina. | <b>Saiatu naiz</b> arduratsu izaten <b>baina</b> ezinezkoa izan da niretzat, hainbeste lan kargarekin, behar bezala agintzen zuten guztia agintzen zuten erritmoan egitea. | <b>Arduratsu</b> ibili naiz, saiatu naiz agindutako lanetan oso atzean ez geratzen. Irakasleek bidalitakoa begiratu dut eta saiatu naiz atzean ez geratzen.                  |
| <b>C</b>                | Irakasleek txarto azaltzen dute eta erabaki dut, <b>askotan</b> , haietaz <b>paso</b> egitea.   | <b>Kostatu zait</b> irakasleek agintzen zuten guztia <b>ulertzea</b> , baina saiatu naiz. Batzuetan galdetu egin dut.  | <b>Nahiko ondo ulertu</b> dut, nik uste, zer egin behar zen, bestela ikaskideei galdetu diet, edo irakasleei.  |
| <b>D</b>                | <b>Ezin izan dut</b> hainbeste lan kargarekin eta horrelako epe zorrotzekin, baina zerbait egin dut. Nire erritmoan.  | Lan gehienak nola edo hala egin ditut baina <b>epeekin problemak</b> izan ditut. Eskatutako erritmo hori... gehiegitxo izan da.  | Eskatutako <b>lan gehienak epean</b> egin ditut baina batzuetan epeez kanpo geratu naiz. Arazo tekniko batzuk izan ditut, baina tira.  |
| <b>E</b>                | <b>Problema asko</b> izan ditut. Etxeko konexioa txarra delako, edo nire gailua txarra delako... Agian ni izango naiz.  | Informatika baliabide batzuekin <b>problemak izan ditut</b> . Lanak ikusteko, deskargatzeko edo kargatzeko, komunikazio kanal batzuekin...                                 | Oro har, <b>problema informatiko gutxi</b> izan ditut. Irakaskuntza euskarriekin moldatu naiz. Atazak atzitu eta deskargatu ditut. Batzuetan, baina, ezin asmatu ibili naiz. |
| <b>F</b>                | <b>Irakasleekin harremanak ez</b> ditut gehiegi zaindu, egia esan. Nahiago nuen haiek ni bakean uztea.  | Irakasle gehienekin <b>komunikatu naiz, noiz edo noiz</b> .  | <b>Irakasleekin komunikatu naiz</b> , haiek eskatu didatenean bai behintzat.   |

**Goian egindako balorazioak kontutan hartuz, zer puntuazio lortu duzu?**

|                |  |
|----------------|--|
| A              |  |
| B              |  |
| C              |  |
| D              |  |
| E              |  |
| F              |  |
| <b>GUZTIRA</b> |  |

**Idatzi azalpen labur bat itxialdi honetan zure buruaren balorazioa eginez.**